

OLATZ ZUGASTI HERNANIARRAK 'ELEAREN LAINOA' DISKO BERRIA EGIN DU

"Disko berrian nere baliabideei ahalik eta zuku gehiena ateratzen saiatu naiz"

■ 'Elearen lainoa' diskoa Zugastiren hirugarrena da, 'Kantu baten bila nabil' eta 'Bulun-bulunka'ren ondotik.

OLATZ Zugasti musiko eta konpositoreak hirugarren diskoa egin berria du, *Elearen lainoa* izenburua duena. Diskoak 13 kantu ditu, baina, 12 dira berriak eta propio diskorako eginak. Olatz Zugastiren ustez, disko horrekin salto haundia eman du bere karrera artistikoan. Aurreko bietan besteren kriterioetara gehitxo bezela errenditu ote zen errezeloa du, eta orain, *Elearen lainoa* berak pentsatu, eta berak bideratu du.

Komunikatzea eta jendea hunkitzea helburu duen diskoa egin nahi izan du Zugastik, eta ahalegin haundia egin du baliabide teknologiko berriak aprobetxatzen. Bere hitzetan, bere baliabide nagusiei, harpari eta ahotsari, ahalik eta zuku gehiena ateratzen saiatu da.

"Identifikatuta sentitu arazten nauten letrak"

Olatz Zugastik Itxaro Borda idazle zuberotarraren hitzak hartu ditu letra duten kantu gehienetarako. "Identifikatuta sentitu arazten nauten hitzak aukeratu ditut", dio musikari hernaniarrak: bai bizitzaren pertzeptzioaz, erreflexio bezela, emakume bezela... *Elearen lainoa* espresioa ere Itxaro Bordari hartu dio eta hitzaren xamurtasuna edo adierazi nahi du. Beste kantu bat Henriette Aire, *Xalbador* bertsolariaren alabarena da eta maitasun kantu bat da.

Zugastik Juanjo San Sebastian mendizalearen gutun bat ere moldatu du disko honetan. *Azkenean Katmandu* izena du eta San Sebastian Katmanduko zulo batean erorita zegoela Miriam Garzia mendizale zenari idatzitako karta da. Zugastik Felix Iñurrategiri eskaini dio kanta hori. Iñurrategik bizitza galdu zuen espedizio hartatik bueltan bilera-afari bat egiteko zuten mendi erreportajeetarako musika aukeratzeko.

Disko berrian, Olatz Zugastik berak ere jarri ditu hitzak: *Zenbat gau* izeneko kantua idatzi du berak. Aitortu du pertsona bat buruan duela idatzia dela eta adierazi nahi duena da gizarteak umetatik pertsonak sistematizatu, mol-



Olatz Zugastik idea berriak ere badabilzki buruan.

datu, eredu baten esanera markatzen dituela, eta pertsona bakoitzaren bideak beste askatasun bat behar duela.

Beste hiru kantuak instrumentalak dira, eta egilearen esanetan, lasaia eta goxoak.

Zugastik adierazi du herri musika deitzen den klitxeeta-

tik ihes egiten saiatu dela, eta ez duela sartu kantuan bertan justifikaziorik ez zuen ezer.

Elearen lainoa disko berri honetan, Orion bizi den musikari hernaniarrak Mikel Fernandez eta Angel Unzu izan ditu ondoan. Zugastik aitortu du biekin oso gustora

egin duela lana.

Olatz Zugastik bakarka kontzertuak eman izan ditu, baina, *Elearen lainoa* ez da zuzeneko emanaldietan entzungo. Zugastik dio kontzertuetan ibiltzeak bere zailtasunak izateaz gain, energia asko eskatzen duen terrenoa dela eta berak oraingo nahiago du egiten duena indarrez egin eta sormenean zentratu. □

OLATZ ZUGASTI: ETXETIK ESZENARIORA

Olatz Zugastiri etxetik dator- kio musika zaletasuna: Aita koruan, eta etxean ere kantu faltarik ez. Lehenengo Jaunartzean erregalatu zioten aurreneko gitarra eta Ixiar Egigurenek erakutsi omen zizkion kantu baten oinarriak: *tonika, dominante...* Olatzek Urumea Ikastolan ikasi zuen eta han ere nabarmendu zituen bere zaletasun eta abilitadeak eskolako emanaldietan. Gaur ETBko buru den Bingen Zupiriaren eskutik hasi zen musika ikasten eta Manuel eta Nikolas Zubillaga ere gogoan ditu Olatzek, Miren Etxanizekin batera. Benito Lertxundi gaur senarra duena ere Urumean ezagutu zuen, oriotarra musika eskolak ematen zebilela. Benitok *Itzaltzuko Bardoa* obran parte hartzeko eskatu zion eta hura izan zen elkarrekin eszenarioan izan ziren aurreneko aldia. Olatz 15 urekin hasi zen harpa ikasten eta Baionan sakondu zituen ikasketak. Alaba bat du eta Orion bizi da, baina, Hernani ez dauka saltzeko.



Ibaiondo poligonoa.

'Ibarlas' enpresa elkarteak arrisku laboralei buruzko foroa antolatu du

HERNANIKO Ibarlas enpresa elkarteak sortu da orain dela gutxi, laneko arriskuei elkarrekin aurre egiteko bideak jartzeko. Lehenengo pausoa eman dute eta urriaren 25erako foroa bat antolatu dute: *Arrisku Laboralen prebentzioarako Hernaniko Igo Foroa* jarri dio izena Ibarlas elkarteak.

Osalan, Fiskala, sindikatuak

Lan-arriskuei aurre hartzeko foroa Hernanin maila honetan egiten den aurrenekoa da eta lan osasunaren inguruko ordezkariak zabala eta garrantzitsua bilduko du. Hor izango dira Iñaki Galdos Osalaneko jereentea, Luis Segurola Audientzia Probintzialeko Fiskala, Jon Lasa Sematec-eko jereentea, Juan Mari Otegi Euchner-eko teknikoa eta ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuak ordezkariak.

Foroa egun osoa izango da eta gai ezberdinak tratatuko dira: akoso laborala, ardurak eta santzioak arlo penalean, makinaren seguritatea, lan-taldeen zatitze soluzio praktikoak eta abar.

Foroa Sandiusterriko aretoan egingo da. Goizeko 09:00ak aldera hasiko da eta arratsaldeko 19:00ak aldera bukatu. □

BERTAKO FRUTA ETA BARAZKIAK

Erkerro
Fruituak

Antziola 5
20.120 HERNANI

Bertako produktuak
Fruitu exotikoak
Telefonoz eskatzeko:

☎ 943 33 32 75
Orain helbide berrian
gaituzuz:
ANTZIOLA 5

CATALANA OCCIDENTE Aseguruak

Bautista Biurarena
Etxegoien

Kardaberaz 40 -Behea
Tel. 943 33 24 40
Faxa 943 556602
Mobila 610 29 27 01
20120 HERNANI

GSE

LAN AHOLKULARITZA
FISKALA
KONTABLEA

GSE

Atzieta 51 Behea - 20.120 HERNANI
Tel: 943 55 02 54- Faxa: 943 33 58 01

HERNANI BIDAIK

Urbieta etorb. 6 - HERNANI
☎: 943 33 00 49 - 33 01 74
e-mail: hernanib@teletel.es
Hernanitik munduko leku guztietara
iristen lagunduko dizugu.

ANTZERKI ZIKLOAN LAU OBRA BITERIN

Alto secreto, Kontenedore baten istorioak, John Wayne-ren laguna, eta a cuestras con murphy

■ Zikloa bihartik ostiralera izango da ■ Bihar, 'Alto secreto' 20:00etan.

BITERIN bihartik ostiralera izango da udazkeneko Antzerki Zikloa eta aurtan 4 obra ikusteko aukera izango dute hernaniarrek. *El gato negro* taldeak, *Maskaradak*, *Ados teatroak* eta *Vaiven producciones* taldeak izango dira aurtengo obrak antzeztuko dituztenak. Emanaldi guztiak Biterin izango dira, arratsaldeko 20:00etan.



Antzerki obra bat Biterin.

'Alto secreto'

Antzerki Zikloa *el gato negro* taldeak zabalduko du *Alto secreto* obrarekin. Obra honetan, bost lapur biltzen dira Suizan, punta-puntako lapurrak denak eta bost naziotatik etorriak. Beren asmoa da *Romanoff* diamantea, munduko bitxirik preziatuen lapurtzea. *Romanoff* diamantea Arte kontenporaneko museoan dago eta hura lapurtzen nahiko peripezi ibili

eta gero, obra bukaeran ikusiko da inor eta ezer ez dela ematen duen bezalakoa.

John Wayne-ren laguna obra etorriko da asteazkenean. Obrako pertsonai nagusia *Xanti* da. *Xanti* gizarteak baztertu ohi dituen horietako bat da, desberdina omen delako. Xantik ez du ordea, erankunde berezietan sartu edo familia barruan gordeta egon nahi. *Xantirentzat* bizimodu normalaren konkista abentura haun-

dia da eta John Wayneren laguntza izango du horretan.

Ostegunean Kontenedore baten istorioak kontatuko dizkigu *Maskarada* taldeak, *Theodor Zakar* eta *Lionel Zabor* pertsonaien bidez.

Ostiralean, *a cuestras con murphy* antzeztuko du *Vaiven Producciones*-ek. Obra *Murphyren* legea da eszenariora eramanda eta eguneroko gure desgrazi txiki bezain haundiak kontatuko dizkigute. □

'Matxinatuen korrikaldiak' Gerra Zibilean fusilatuta hildakoak omenduko ditu Hernanin, asteazkenean

■ Matxinatuen korrikaldia Ezker Abertzale inguruko gazte mugimenduaren inizatiba da ■ Salbuespen egoera salatu dute eta insumisioarako deia egin.

EZKER Abertzale inguruko gazte mugimenduak Matxinatuen korrikaldia izeneko inizatiba jarri du martxan, eta asteazkenean Hernanin etorriko da. Gazte mugimenduak Kronikari adierazi dionez, Euskal Herria salbuespen egoeran dago, eta Frantzia eta Espainiako legalitateek Euskal Herria suntsitzea dute helburu.

Egoera horren aurrean, legalitate horrekiko desobediencia eta insumisioa proposatzen du, eta "Euskal Herria askatuko duen legalitatea" sortzea, euskal herritar guz-

tien eskubideak garantizatuko dituena eta Euskal Herriaren hitza eta erabakia garantizatuko dituena.

Egun osoko ekitaldia

Matxinatuen korrikaldia 14:00etan iritsiko da Hernanira. Andoaindik barrena dator eta Mandazubiko rotondan egingo zaio ongi etorria, eta gero 14:30etan harrera ekitaldia egingo da Tilosetan. 15:00etan, eskualde mailako bazkaria izango da Tilosetan bertan. Bazkalondan beste ekitaldi bat, eta 17:00etan hasiko da korrikaldia.

Herriko taldeen babes

Hernaniko ekitaldiaren antolatzaileetako baten esanetan, Matxinatuen korrikaldiak herriko taldeen babesa du eta talde horietako ordezkariak izango dira korrikaldiko lekuko eramango dutenak. Korrikaldia herriko kaleetan barrena ibiliko da eta kanposantuan bukatuko da. Han, Gerra Zibilean fusilatuta hildakoei omenaldia egingo diete, gorputzak lurperatuta dauden lekuan bertan. Ondorenean, 18:15etan kotxe karabana egongo da Oiartzungo ekitaldia joateko. □

Giro ederra Elizatxo elkarteak, urteurreneko afarian

ELIZATXO elkarteak urteurreneko afaria izan zuen ostiralean. Denera, 60 lagun inguru bildu ziren eta afaria giro ederrean joan zen. Afalondan, Inazio Goñi lehendakariak Tute eta Mus txapelketako sariak banatu zituen. Aurtengo irabazleak, musean, Miguel eta Angulo izan dira; eta tutean, berriz, Valentín eta Astiz gelditu dira txapeldun. □



Elizatxoko mus eta tute txapelketako sarituak eta bazkideak.

HITZ BITAN



Arriatsun ikasten ibilitako koadrilak fuerte eusten dio ohiturari.

OSIÑAGA

Arriatsuko eskolan ibilitako festa. Arriatsuko eskolan ibilitakoek urtero festa egiten dute urriaren 12an. Aurtan ere *ikasle* talde dezentea bildu da eta bazkari ederra egin zuten. Bazkalondan trikitixa izan zuten festa girotzeko.

WATERPOLOA

Hernani Ak partidu bat irabazi eta bestea galdu. Waterpoloko Hernani A taldeak 2 partidu jokatu ditu asteburuan. Euskal Ligan 5-7 galdu zuen Larrainaren kontra; hala ere jokoz hobetzen ari dira. Gipuzkoako Ligan, berriz, ez zuten kontrariorik izan. Easoren kontra jokatu zuten eta 11-5 irabazi. Bestalde, Hernani Bk Gipuzkoako Ligako partidua zuen atzo kiroldegian. Ia bukaera arte dezente ondo eutsi zion partiduari, baina, azkenean esultsioak eta failo batzuk medio 11-8 galdu zuen. Hernani B datoren astean hasiko du Bigarren mailako Euskal Liga.

3/4 PLATAFORMA

Mendi martxa eta bazkaria presoan alde. 'Noizko?' eguna girotzeko, mendi martxa egin zen atzo goizean, kondeneren 3/4ak beteak dituzten presoan etxeetan barrena. Gero, Ereñotzuko Ur-Mia elkarteak bazkaria egin zuten. Ekitaldian 60 lagun inguru bildu ziren.

XAKEA

Hernaniko bi talde Gipuzkoako Ligan. Hilaren 19an hasiko da Gipuzkoako Liga eta Hernanik bi talde izango ditu bigarren mailan. Talde batean daude: Isidro Esnaola, Fernando Esnaola, Jon Altuna *Oxan*, Breogan Estevez, Mikel Apezetxea, Jon Garmendia eta Gerardo Plaza; bestean, berriz, Jesus Navascues, Eneko Soto, Iñaki Zabala, Arkaitz Bereziartua, Charly Reollo, Txemar Orrellana eta Jose Anjel Ijurjo. Bestalde, Udalak lokala utzi dio Xake elkarteari eta elkarteak eskerrak eman dizkio laguntza horregatik. Lokala Aristizabal 5-ean dago. Gerardo Plazak Kronikari adierazi dio Xake elkarteak gazteekin lanean hasteko asmoa duela. Horretarako, ikastetxeekin hitz egingo du eta urte bukaera aldera Torneo bat antolatu nahi du. □

KIROLA ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA	Taldeak	PELOTA	Taldeak
Gorengoak	Touring 2-Hernani 4	Afizionatu	Gipuzkoako Txapelketa
1. Errejon	Hernani 1-Euskalduna 0	Pala Motza	Alvarez 10-Girizia 22
Gazt. Naz.	Hernani 1-Danok Bat 0	Jubenilak	Ubarretxena 22-Galarza/Kuku 12
Gazt. Ohor.	Hondarribia 4-Hernani 0	Kadeteak	Arrieta 22 / Ikaskirola 8
Kad. Ohor.	Herrera 3-Hernani 0	Kadeteak	Artola-Arrieta 12 / Zarautz 22
Kadete 2.	Hernani 12-Mundarro 0	Kadeteak	Ojuel-Apaolaza 22 / Ikaskirola 12
Haur. Ohor.	Hernani 6-Aloña Mendi 1	Kadeteak	Zabala-Gorrotxategi 22/Azkoitia 7
		Kadeteak	Ezeiza 22 / Girizia 5
		Kadeteak	Erdozia-Huizi 22/ Eibar 19
WATERPOLOA			
Euskal Liga	Hernani 5-Larraina 7	ERRUGBIA	
Gipuzko. L	Hernani A 11-Easo 5	1.Liga Naz.	
Gipuzko. L	Hernani B 8-Tximistari 11	Euskal Liga	
		Hernani 15 -Caja Cantabria 34	
		Abanto 0-Hernani 68	

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

☎ Taxiak:
943 550093
☎ Udaltzaingoa:
943 333288
☎ DYA:
943 464622
☎ Anbulatorioa:
943 006666
☎ Jokalari anonimoak
943 331103

FARMAZIAK

☎ Egunez: Etxebeste
Elkano 2
☎ 943 552087
☎ Gaeuz: Arzallus
Andoain. Plazaola 17,
pol 25 ☎ 943 591514
☎ **ASTEARTEA**
☎ Egunez: Bilbao-
Sagastiberri, Urbieta 7
☎ 943 552941

☎ Gaeuz: Arzallus
Andoain. Plazaola 17,
pol 25 ☎ 943 591514

ASTEAZKENA

☎ Egunez: Gomez
Kale Nagusia 15
☎ 943 554892
☎ Gaeuz: Elizondo
Andoain. Zumea 30
☎ 943 592629

IRAGARKI MERKEAK

Pertsona bat behar dugu tabernako sukaldean lan egiteko. Interesatuak deitu astelehenean aurrera: ☎ 943 55 67 06

Pisua salgai, Kardaberaz kalean. Pana parkerako bistak, 2 gela, sala, sukaldia, 2 komun eta aparkatzeko plaza erreserbatua. ☎ 646 47 02 58

Klase partikularak emango nituzke: elektronika (digitala eta analogikoa) elektrizitatea, Neumatika, Hidraulika... ☎ 646 83 27 52